

## Joseba Zulaika

ANTROPOLOGOA

## «Gurea bezalako kultur diferentziak beharrezkoak dira mundu globalean»

■ ■ ■ Kultur identitate kolektiboaren eraikuntzari buruzko jardunaldiak ibi zituen atzo Bilbon Joseba Zulaikak. ■ ■ ■ Euskal kulturaren geroaz baikor da, aniztasunaren bidez identitate eta mito berriak sortzen ari direla uste du. ■ ■ ■ Datorkigun globalizazioaren aurrean tradizioa eta kanpoko elementuak uztartzeko beharra defendatzen du.

■ **Bilboko Abandoibarra eta Zorrozaurre guneak auzeratu dituzte identitateaz eta mitologia berriez mintzatzeko.**

Adibide ezin hobeak dira. Zorrozaurre da gure ruinen ikuskizunaren lekuko. Hor ikusten ditut nik gure beste zenbait ruinen alegoriak, gure kulturako eta politikakoak. Interesgarria iruditzen zait mende bukaera honetan ruina horietan buruzko gogoeta egitea.

Rutnek beti baitmentzen dizute mundu berri baten eraikuntza, mitologia berria asmatzea. Abandoibarra ikusten dut mitologia berri horren eta eraikuntza esanguratsuen toki bezala. Elkarren ondoan dauden bi auzoen arteko dinamika, ruinak eta eraikuntza enblematikoak, alegoriak eta mitoak, elkarren arteko tentsio hori dut mintzagai. Identitate oro ruina bat bilakatzen da urteek aurrera egin ahala, eta identifikazio eta mito berriak behar dira.


■ **Identitate krisia eta mito berrien bilaketa mende bukaerako zeinuak al dira?**

Gauza askoren zeinu dira. Milurtekoaren akabera data sinboliko proposa da geure buruari esateko iragan bat pasatu dela, industria, ekonomia, kultura eta politika mota batzuk atzean gelditu direla, eta gero eta hurbilago datorren mundu globalizatu eta Europa supraestatal honetan beste kultura mota batzuk sortzeko garaia badela.

Lehenengo arazoak eta dikotomiak ahaztu edo beste modu batean planteatzeko eskubidea daukagu, milurteko berriaren atarian baizkaude.

■ **Aldaketa prozesuan ildo beretik al doaz agintarien eta herritarren indarrak?**

Nik uste dut tentsioak ere behar direla, baina dena integratu beharra daukagu. Euskaldunak garen neurrian



MONIKA DEL VALLE

## Bilbo, ikerketarako gai

JOSEBA ZULAIKAK argitaratu berri du *Enemigos, no hay enemigo* (Arerioak, ez dago arerlorik) liburua, eta orain buruan darabilen asmoa da Bilbori buruzko etnografia egitea. «Duela 30 urte Bilbon bizi izan nintzen. Denbora horretan gure belaunaldiko jendea euskaldun izatea nola aldatu zaigun aztertu nahi dut. Gure ruinak ospatu nahi ditut batetik, ea gure aberastasuna ruina horietan ikusi ere bai, azaldu du, hiriarren ruinak eta gizarte eredu batenak parekatuta.

Bestalde, Estatu Batuetan argitaratuko litzatekeen lana ere egin nahi du Nevada-Renoko Unibertsitatean irakasle den antropologoa. «Guggenheimen arrakasta izugarriaren berri badute estatu batuarrek, baina Bilboz eta Euskal Herriaz apenas ezer dakiten», ohartarazi du. Ildo horretan zehaztu duenez, «Bilboko konplexutasuna eta Euskal Herrian bizi dugun trantsizio handiaz egin nahi dut berba, politikan, kulturen, hirigintzan ematen ari den aldaketaz. Euskal Herria zenbaiterainoko herri konplexua den azaldu nahiko nuke. Agian Guggenheimen arrakasta ez dela besterik gabekoa, atzean gizarte bat badagoela».

euskara eta tradizio kulturala indartu behar ditugu, baina aldi berean kanpoko beste elementuak hartu. Bertakoa

bultzatzeko kanpoko elementuak ballagarri izan daitetze, geure erara integratzen jakinez gero. Bertako

proiektu nazional batek aniztasun hori bere baitan behar du, bestela ez du etorkizunik datorren mundurako. Nik uste dut Euskal Herriaren gehienok ulertzen dugula aniztasuna nahitaezkoa dugula eta proiektu zabala behar dugula. Mundu globalean gurea bezalako diferentzia kulturalak beharrezkoak ikusten ditut.

■ **Eztabaldak hauek nola islatzen dira artearen munduan?**

Nik uste dut artea eztabaldak hauen ispilu ona dela. Hor ditugu Otelza, Txillida eta baita artista gazteak ere, batzuk tradizio horretatik oso urrutit daudenak. Denak dira gure lurralde honetako adie-

razpenak, eta beraten arteko ezberdintasunak, eraginak edota eztabaldak gure egoeran bizi dugun aniztasunaren isla dira. Ez dago tradizio ba-

kar bat zeinaren arabera denok estetika berbera behar dugun, baina hemen sortzen diren lanak bertako gizartearekin harremanetan daude.

■ **Identifikazio elementuen eta mitoen bilaketa nor izaten ari da aitzindari?**

Kultura eta ekonomia globalak dira, hau da, merkatuak, informazioak, bidaiatzeak, denori ari zaizkigu erakusten bertakoa eta kanpoko gero eta gehiago lotu beharra daukagu. Zenbat eta kanpoko elementu gehiago

asimilatatzeko gai garen, identitate aberatsagoa sortuko dugu. Ez dut uste inor ari zaigunik ezer inposatzen; indar globalek eta bertan erreakzioz hartzen ari garen jarrerak sortarazten dituzte identitate berriak.

Bilbo hori guztia- ren adierazte onada, aldaketa horien guztien saiakera gunea. Kanpoko elementuak, Guggenheim museoak, eta bertoko kultura, euskaren berpiztea esaterako, dinamika

horretan leudeke. Izan ere, Euskal Herri konplexuagoa eta aberatsagoa sortzen ari gara.